

## Ekainaren 2tik 11ra bitartean, Txikifest jaialdiak kaleko 30 ikuskizun eta ekintza baino gehiago eskainiko ditu haur eta familientzat

2023/3/31



Ekainean, haur eta familientzako aire zabaleko kultura-programazioa izango da erabateko protagonista Getxon. Kultur Etxeak abian jarriko duten ekimen honek kultura haurrei hurbiltzeko asmoa du eta **2023ko Aurrekontu Parte-hartzaileetan kulturaren alorrean herritarren aldetik jasotako eskaerak egia bihurtzeko gauzatu da**. TxikiFesteko programazioak hainbat diziplinako arte eszenikoen ikuskizunak (clown, antzerkia, musika, zirkua, dantza) eta parte hartzeko ekintzak bilduko ditu, hala nola arte plastikoetako tailerrak, bertsolaritza eta ahozkotasan dinamikak, ginkanak, jolasguneak eta irakurzaletasuna sustatzeko guneak, besteak beste.

Ekainaren 2tik 4ra bitartean, egitaraua Areeta eta Romo auzoetan garatuko da, kokapen irisgarrietan, hala nola Geltokia plaza eraberrituan, Santa Eugenia plazan eta Eskoletako plazan. Hurrengo asteburuan, ekainaren 9tik 11ra, Algorta auzoaren txanda izango da. Bertan, Algortako Geltokia plaza, San Nikolas plaza eta Biotz Alai plaza izango dira agertoki nagusiak. Euria edo eguraldi txarra egiten badu, programazioaren zenbait ekintza estalpeko espazio alternatiboetan garatuko da.

### Programazioa

Programazioan Getxoko, Bizkaiko, Euskadiko eta Estatuko erakunde eta konpainien lanak daude. Lehenengo egunean, ekainaren 2an, Bartzelonako La Baldufa Teatre konpainiaren "Zeppelin" ikuskizun ibiltariarekin hasiko da jaialdia, Bizkaia Zubitik Santa Eugenia plazaraino. Ondoren, publikoak "Numenak" (Yarleku Teatro) antzezlanaz gozatu ahal izango du Areetako Geltokia plazako aire zabaleko entzunareto berrian.

Bigarren eguneko goizean, hilak 3, larunbatean, Areeta zirku azoka tradizionala bihurtuko da Bambolea taldearen eskutik, kasetak eta zirku-joko tradizionalekin, eta

publikoak familiei zuzenduriko Dantza Plaza ekitaldiaren saio berezia izango du, bertoko dantza taldeek bultzatuta, Eskoletako plazan. Arratsaldean, eskaintza Romo auzora pasatuko da, "Iratxoen Kantu Sekretuak" (Gookapi) musika-ikuskizunarekin, eta egunari amaiera emango zaio "Glubs" (Nacho Vilar Producciones) kalejira ibiltariarekin. Bertan, lau marinel zoro noraezean agertuko dira Santa Eugenia plazan, eta publikoak ontziratzekeo portu bat aurkitzen lagundu beharko die.

Hurrengo egunean, hilak 4, igandean, animalia itxurako tamaina handiko txotxongilo artikulatu batzuek hiri-eremuan ezarriko dute beren kanpamendua. "Animalia" ikuskizunak (Sandal Productions) animalien portaera aztertzen duten naturzaleen kanpamentuak birsortzen ditu. Antzezpenaren ondoren, haurrek zurezko jolasak balira bezala jokatu ahal izango dute txotxongilo horiekin, tipi estiloko denda betetako espazio natural batean. Eguerdian, Dantzaz talde euskaldunak bere "Menu" ikuskizun ibiltaria ekarriko du eta Izaskun Rueda getxotarrak antzerkia eta zirkua uztartzen dituen "Bidaibizitzen" obra. Arratsaldean, Tor eta Txoborro magoek "TNT" magia ikuskizuna eskainiko dute eta jardunaldiari amaiera emateko, "Candido" (La Nördika) zirku ipuina izango da.

TxikiFestek hurrengo asteburuan jarraituko du programazioa, ekainaren 9tik 11ra, Algorta auzoan. "Gora Bihotzak" (Eidabe) taldeak hasiera emango dio Biotz Alai plazan eta, iluntzean, publikoak "Herentzia" (La Industrial Teatrera) clown erako ikuskizunaz gozatuko du, non zaborrontzi baten barruan dauden bi pertsonaiek datozen belaunaldiei utziko diegun munduari buruz hausnartzen lagunduko duten.

Ekainaren 10ean, mekanika klasikoaren sekretuak goizeko protagonista izango dira, "Ingenii Machina" (Alauda Teatro) instalazio parte-hartzaileari esker. Instalazio horrek gorputzen mugimendua eta oreka eragiten duten indarrak eta makinak asmatu, eraiki eta maneiatzeko teknikak aztertzen ditu. Halaber, haurrek "Baserriko Porrusalda" (Bapatean Zirko) eta "Piraten istorio bat" (Erre Produkzioak) antzezlanaz gozatuko dute. Iluntzean, Andaluziako Vaivén Circo konpainiak bere zirkuko koreografia ikuskizun berria aurkeztuko du, barrea, presa, enpatia, mina, beldurra eta itxaropenaz hitz egiteko. Larunbateko egunari amaiera emango zaio Algortako kaleak argiz eta musikaz beteko dituzten txotxongilo erraldoien kalejira ibiltari batekin.

Jaialdiaren azken egunean, hilaren 11n, igandean, jendeak garbigailu erraldoi kolektibo bat prestatzeko aukera izango du, "Garbi Jai" (Eidabe) antzezlanaren eskutik; Agurra Dantza Taldeko erraldoi eta buruhandiek Algortako kaleak zeharkatuko dituzte, San Nikolas plazatik Telletxeko Geltoki plazaraino, eta Lilura Abesbatza Getxoko haur abesbatzak bere erreperitorio musikala aurkeztuko du. Arratsaldean, "Menina" (7bubbles) familia osoarentzako poesia ibiltariarekin eta OrainBi konpainiaren pertxa akrobatikoarekin amaituko da jaialdia.

### **Jarduera parte-hartzaileak: jolasguneak, tailerrak, irakurketa familiarra eta gynkhana**

Gainera, egunero, 17:00etatik 19:00etara, jarduera parte-hartzaileen txanda izango da. 0 eta 3 urte bitarteko haurtxoak ludoteka bat izango dute, bereziki adin goiztiarrari zuzendua, ekainaren 2tik 4ra, eta belaunaldien arteko jolasgunea ekainaren 9tik 11ra. Era berean, 3 urtetik gorakoentzat irakurketa gune familiar bat egongo da, eta parte hartzeko gune honetan mota askotariko tailerrak ere egongo dira: ostiraletan (ekainak 2 eta 9); arte plastikoei buruzko horma-tailerra, larunbatetan (ekainak 3 eta 10); bertsolaritza eta ahozkotasanari buruzko tailerra, eta, igandean, ekainak 11; gorputz adierazpenari buruzko tailerra, Getxoko Organik konpainiaren eskutik.

Ekainaren 10ean eta 11n, goizeko ordutegian, haurrentzako "Botasen bila, Athleticeko futbolaria" izeneko ginkanaren hiru emanaldi izango dira Utopian herriko antzerki eskolaren eskutik. Familiek Algortako kaleetan bilatu beharko dute Botas, Ramiro Pinilla getxotar eleberrigileak idatzi zuen "Aquella edad inolvidable" eleberriko pertsonaia nagusia. Jardueran parte hartzeko aldeztu aurretik doako izen-ematea egin beharko da.

### **Eskolako paseak goizean**

Haurrei eta familiei zuzendutako jaialdia ez da Getxoko ikastetxez ahaztuko eta hori dela eta, ostiral goizetan ikasleen txanda izango da. Ostiralean, hilak 2, "Numenak" (Yarleku Teatro) antzezlanaz gozatuko dute, eta hilaren 9an, "Gora Bihotzak" (Eidabe) musikalaz.

### **2009tik aurrera jaiotako biztanleentzako doako gonbidapenak**

Bestalde, herritarrek kultura adin goiztiarretara hurbiltzeko joan den urtean burutu zuten eskaerari erantzunez, 2009tik aurrera (14 urte arte) jaiotako haur eta nerabe getxoitarrek kultur jarduera batez gozatu ahal izango dute doan Muxikebarri eta RKE Romo Kultur Etxean urtebeteko epean edo gonbidapen kopurua agortu arte. Gonbidapena haurrei edo familiei zuzendutako jarduerekin trukatu ahal izango da, hala nola Zinematxiki zinema zikloekin, Andres Isasi Musika Eskolako emanaldiekin, Muxikebarri eta RKEko ikuskizunekin eta Gabonetako programazioarekin, besteak beste. Gonbidapenak jasotzeko epea Kultur Etxeak jakinaraziko du laster ohiko kanalen bitartez.

Gonbidapenak jasotzeko, Muxikebarri edo RKEko leihatiletara joan beharko dira ohiko ordutegian z, eta NANA, familia-liburua edo adingabearen ordezkari edo tutoretza egiaztatzen duen edota baliokide den beste edozein dokumentu aurkeztu beharko dute.





# TXIKIFEST

Getxoko kaleko arteen jaialdia, haur eta familientzat  
Festival de artes de calle para la infancia y la familia



2023ko Aurrekontu Parte-hartzaileetan jasotako herritarren eskaerei erantzuten die ekimen honek **TxikiFest jaialdiak haur eta familientzako arte eszenikoen ikuskizun eta ekintzen programazio zabala eramango du kalera ekaineko lehen bi asteburuetan**

Ekainaren 2, 3, 4, 9, 10 eta 11n, Romo, Areeta eta Algortako auzoek TxikiFest hartuko dute, Getxoko Kultur Etxeak antolatutako Kaleko Arteen Jaialdia, haur eta familiei zuzendua, hain zuzen ere. Ekimen hori 2023ko Aurrekontu Parte-hartzaileetan herritarren aldetik jasotako eskaerei erantzuteko jarriko da abian eta bere helburua kaleko haur eta familientzako kultura hurbiltzea da.

Eskainiko den programa oso anitza da, 30 ikuskizun eta jarduera baino gehiagorekin. Arte eszenikoen atalean, clown, antzerki, musika, zirku, dantza, magia eta txotxongilo ikuskizunak egongo dira, besteak beste, kalejira formatuko lanak ahaztu gabe. Horiek Getxoko eta Bizkaiko konpainiek eta erakundeek antzetzuko dituzte; Euskadiko eta Estatuko beste

artista eta eragileek ere parte hartuko dute.

Bestalde, partaidetza ekintzen programan, besteak beste, arte plastikoetako, bertsolaritzako eta ahozkotatasuneko tailerrak, ginkanak, jolas-guneak eta irakurzaletasuna sustatzeko guneak daude. Programazio osoa doakoa izango da eta, ez da alde aurreko izen-ematerik beharko, ginkanaren kasuan izan ezik.

Euria edo eguraldi txarra egiten badu, ekitaldi batzuk estalitako espazio alternatiboetan egingo dira. Eguraldi txarra dela eta aldaketarik izanez gero, Getxo Kulturako sare sozialen bidez jakinaraziko da unean-unean. Jaialdiaren programazio osoa [www.getxo.eus/txikifest](http://www.getxo.eus/txikifest) web estekan eskura dago.

## Sormena sustatzeko jarduera ludikoak eta parte-hartzaileak



Gaztetxoaren sormen gaitasuna suspertzeko helburuarekin, hiru tailer jarriko dira martxan. Garrobi herriko taldearen eskutik, 4 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako horma-pintura tailerra egingo da ekainaren 2an eta 9an. Bestalde, Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) 6 eta 12 urte bitarteko jendearengana hurbilduko du bertsolaritzaren mundua ekainaren 3an eta 10ean. Azkenik, Organik Dantzak gorputz-adierazpena landuko du tailer ludikoen bidez ekainaren 11n. Horrelako jardueren proposamena familientzako bi ekitaldik osatzen dute. Lehenengoa 'Botas-en bila, Athleticeko futbolaria' ginkana. Bertan, familiek Ramiro Piniñaren 'Aquella edad inolvidable' eleberriko pertsonaia nagusia bilatu beharko dute Algortako kaleetan ekainaren 10ean eta 11n. Horretarako, alde aurretik izena eman beharko da [www.getxo.eus/botas](http://www.getxo.eus/botas) web estekaren bitartez. Bigarren proposamena Areetako Geltokia plazan (ekainak 2, 3 eta 4) eta Biotz Alai plazan (ekainak 9, 10 eta 11) kokatuko den irakurketa familiarraren gunearen eskutik dator. Bertan, udal liburutegien zerbitzuak bereziki eginiko ipuin eta komikien aukeraketa jarriko da jendearen eskura.

**TXIKIFEST EGITARAUA****AREETA | ROMO**

<b>EKAINAK 2   ostirala</b>			
Ordua	Tokia	Gomendutako adina	Ikuskizun-ekintza / Hizkuntza
17:00 – 19:00	Geltokia plaza	0 – 3 urte	Ludoteka eta horma tailerra
18:30	Bizkaia Zubia plaza / Santa Eugenia plaza	Adin guztiak	ZEPPELIN   testu barik
20:00	Geltokia plaza	Adin guztiak	NUMENAK   eus
<b>EKAINAK 3   larunbata</b>			
11:30 – 14:30	Geltokia plaza	Adin guztiak	CIRCUS FERIA   gazt
12:00	Eskoletako plaza	Adin guztiak	FERIETA PIRATA   gazt
17:00 – 19:00	Geltokia plaza	0 – 3 urte	Ludoteka eta BERTSOLARITZA tailerra
19:00	Santa Eugenia plaza	Adin guztiak	IRATXOEN KANTU SEKRETUAK   eus
21:00	Geltokia plaza / Zugatzarte etorbidea	Adin guztiak	GLUBS   testu barik
<b>EKAINAK 4   igandea</b>			
11:30	Geltokia plaza	Adin guztiak	ANIMALIA   gazt
12:30	Geltokia plaza / Santa Eugenia plaza	Adin guztiak	MENU   testu barik
13:15	Santa Eugenia Plaza	Adin guztiak	BIDAIABIZITZEN   eus
17:00 – 19:00	Geltokia plaza	0 – 3 urte	Ludoteka eta irakurketa-gunea
17:00	Geltokia plaza	4 – 12 urte	BIDAIA LILURAGARRIA   eus
18:00	Eskoletako plaza	Adin guztiak	TNT-Tor eta Txoborro magoak   eus
19:00	Santa Eugenia Plaza	Adin guztiak	CÁNDIDO   testu barik

**ALGORTA**

<b>EKAINAK 9   ostirala</b>			
Ordua	Tokia	Gomendutako adina	Ikuskizun-ekintza / Hizkuntza
17:00 – 19:00	Biotz Alai plaza	Adin guztiak	Belaunaldien arteko jolasgunea, irakurketa-gunea eta horma-tailerra
19:00	Biotz Alai plaza	Adin guztiak	GORA BIHOTZAK   eus
20:30	Geltokia plaza	> 6 urte	HERENCIA   testu barik
<b>EKAINAK 10   larunbata</b>			
10:45, 12:00, 13:15	San Nikolas plaza	Adin guztiak	Ginkana BOTAS   ele bitan
11:30 – 14:30	Geltokia plaza	Adin guztiak	INGENII MACHINA   gazt
12:00	San Nikolas plaza	Adin guztiak	BASERRIKO PORRUSALDA   eus
17:00 – 19:00	Biotz Alai plaza	Adin guztiak	Belaunaldien arteko jolasgunea, irakurketa-gunea eta horma-tailerra
19:00	Geltokia plaza	Adin guztiak	PIRATEN ISTORIO BAT   eus
20:00	San Nikolas plaza	> 6 urte	ANÓNIMA   testu barik
21:30	Telletxe / Tellagorri plaza	Adin guztiak	GIANT LUMEN   testu barik
<b>EKAINAK 11   igandea</b>			
10:45, 12:00, 13:15	San Nikolas plaza	Adin guztiak	Ginkana BOTAS   ele bitan
11:30	San Nikolas plaza	Adin guztiak	GARBI JAI   eus
12:30	San Nikolas plaza / Telletxe	Adin guztiak	Erraldoi eta buruhandiak
13:30	Geltokia plaza	Adin guztiak	LILURA HAUR ABESBATZA
17:00 – 19:00	Ludoteka	0 – 3 urte	Irakurketa-gunea eta gorputz-adierazpeneko tailerra
17:00	Biotz Alai plaza	4 – 12 urte	IPUIN LABURRA   eus
19:00	Geltokia plaza	Adin guztiak	MENINA   testu barik
20:00	San Nikolas plaza	Adin guztiak	MUTE   testu barik